
GALLURRA

Mendiaren gaña amets egin dot,
 Arranoak dabiltz goian
 Lurra, zugatz, gorago arkaitzak...
 Egaztu ba'nei ganian.

Euzkadiko lurraren ederra...!
 gallurretan, barriz, ames...
 Elkarri eupaka dagoz gañak.
 gorantz eiteko joranez.

Mendi barnean jaio nintzan,
 ama lurraren oiñian,
 beti, eguzki billa nenbillen
 egun sentia zanian.

euskal baratzak, euskal mendiak,
 maitatu alan nenkusan;
 Euzkadiko edertasunean
 nere gogoia batu zan.

Lur, solo, ibaiak eder ziran,
 dardar negian bidean'
 noiz, elduko gain argira
 eguzkiaren antzean.

Ibai ondoan, sarri, enbata,
 Ni a urratu ezinik.
 Beti gañera igoteko garrez
 euskal lurrez bat eginik.

Mendi egalez lañoak narraz,
 indarka nabil uxatzen...
 biotz garrak ez dau nai ikusi
 aritz lerdenik zapaltzen.

Negua da, oraindik, euritan.
 Narras-marras denporala.
 Gaillurrera igon nai mutillak
 ta uretik dator kresala.

Indarka dabil nere gogoia
 laño artean gora,
 mendi gaña eguzkitan dago,
 poza datorkit gogora.

Nere gaba ta nere goiza
 egunsentian argitu...
 illuna joan, lañoak urratuz
 olermena indarbarritu.

Aurrean dakuts mendi gallurra
 lur maitasun, eriotan,
 ain zara eder Euskalerrria
 garrezko zorabiotan.

Mendi gañean zelaia dago,
 egazka doa aizea,
 urregorritzko argia, goxo,
 gogoia daukat ernea.

Euzkadi zakuts olermenetan
 zeruaren garraziaz,
 Aberririk ederrena dago
 maite miñaren graziaz.

Eguzkiak urrea dario,
 izadi oro argitan,
 gora goraka dabil gogoia
 olerkiaren bizitan.

Lañoak, berez, deuseztu dituk
 eguzkia etorkeran,
 esna adi gogoaren barrena,
 olermena biztukeran.

Geiago ez dok lorik egingo
 olerkiaren sormena,
 ederregia duk izadia
 geldizteko oermenena.

Mendi gaña maitagarria duk
 olerki gallur bezela,
 guztia dago urre gorritan
 argia irunzten dabela.

Nere olermen, eder-zalea,
 ots egiok argiari,
 beti, mendi gañez bizitzeko
 ots, maite-min ederrari.

PAULIN